


Marian Galarraga, euskaraz ahotsa jartzen





AURKIBIDEA

- Iritzia** Olatz Peñagarikano **3**
- Elkarrizketa** Jesus Angel De Marcos ONCEko saltzailea **4-7**
- Xiberutik** Aitor Atxega **8-9**
- Asteko Gaia** Marian Galarraga euskararen ahotsa **10-17**
- Bertsoa** Adur Gorostidi **21**
- Agenda** **23-25**
- Erreportajea** Berrobiko Txalo-Talo antzerki taldearen 'Zaharrak berri' **26-29**



Azaleko irudia
Irati Saizar

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeke Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Gipuzkoako Foru Aldundia

TIK-TAK eta TIK-TOK



**OLATZ
PEÑAGARIKANO
IRAZUSTA**

Gure etxea ikastolatik 300 metro eskasera dago; azpian gazte lokala dugu, bi urte inguru izango dituen, eta eraikin berean, metro batzuk urrunago, liburutegi berritua. Haur eta gazteen joan-etorriekin, beraz, ohituta gaude, eta egunero-

koak ditugu haien algara eta elkarrizketa ozenak, kekak zein purrustadak. Nahigabeen, ikastolako pasadizo edo txutxu-mutxuez enteratu ohi gara, eta egia-ri zor, gehienetan irri txiki batek egiten dit ihes.

Halaxe nindoan egunero bezala etxerako bidean, eta hara non ikusi nituen liburutegi parean, espaloia erdizka hartuz, hiru bat neska. Ume gorputz oraindik, koreografia antzeko bat egin nahian zebiltzan, euren adats eta melenak astintzen, esku eta gerri mugimenduek lagunduta. Segituan etorri zitzaidan burura: tik-tok.

Ez ditut kontatu horretantxe topatu ditudan gazte-txo taldeak, baina ez dira gutxi izan. Orain pentsatzen jarrita, inozentea behar luke ekintzak berak. Zer du, bada, txarretik dantza egiteak? Ez dakit zehazki zergatik, baina senak diost ez dela dirudiena bezain sanoa. Ziurrenik, denbora-pasa horren atzean besteengan eragin nahia dagoelako, gainerakoan onespena izatea. Eta ez da berria, betidanik nahi izan dugu besteen gustuko izan, baina nago ni nerabea nintze-nean munstroa ez zela hain handia.

Gaur egun, ondo ohartuta gaudenez, zenbakitan kontatu daiteke arrakasta soziala: ditxosozko jarraitzaile edo *followerrak*, askoren helburu bakar eta na-

gusi. Pentsa, milaka lagunek diru iturri ederra lortzen dute 15 segundotako bideoak igoz, zenbaiten kasuan ogibide bihurtzeraino. Gazteek youtuber izan nahi dutela? *Influencer*?

Ez dira inozoak, tendentzia edo joera jarraitzen ari dira, funtzionatzen duenaren harian. Benetan kezka sortzen didana da goizegi iristen zaiela hau guztia, oraindik nor diren jabetzen ari direnean, eta justu nortasun propioa eraikitzeko garaian, besteekiko dependentzia handiegia sortzen zaiela. Atseginaren menpe, ez gustatzeak dakarren frustrazioari aurre egin ezinik. Ez naiz aditu, baina ez zait iruditzen kasualitatea nerabeen artean antsietate eta depresio kasuak bikoiztu izana. Eta bai, gerora ikasiko dute kritikoak izaten, euren burua babesten, baita zentzuz jokatzeko ere. Ordurako, ordea, orbainak handiegia izan daitezke.

Tik-tak. Denborak ez baitio gezurrik. Eta ez du bar-katzen.

Gure etxean ere ez. Lerrook idazten ari naizen bi-tartean hortxe ikusi baitut gure zapaburua, bi urtera iristen ez dena, mugikorra hartu eta hatza pantailan irrinstatzeko ahaleginetan. Tik-tak. Akabo. Beranduegi da, borroka galdu dugu. Orain etsaiarekin bizitzen ikasi behar.

«Ez dakit zehazki zergatik, baina senak diost ez dela dirudiena bezain sanoa. Ziurrenik, denbora-pasa horren atzean besteengan eragin nahia dagoelako»



«Jendeak herrian saltzen duzun zenbakia erosi nahi izaten du»

JESUS ANGEL DE MARCOS FRIAS
ONCE-KO SALTZAILEA

Herriz herri aritzen da ONCEko kupoia eta beste zozketa batzuk saltzen. «Ibilbide bat egitearen gauza politenatarikoa jendearekin izaten duzun gertutasuna da», azaldu du De Marcosek.

Imanol Garcia Landa

ONCE erakundearen zozketen saltzailea da Jesus Anjel De Marcos Frias (Ordizia, 1974). Goierri eta Tolosaldeko hainbat herritan aritzen da saltzen. Tolosaldean Jesus bezala ezagutzen dute, eta bere jaioterrian eta inguruan *Medu* ezizenez. Euskaldun berria

da eta euskaraz hitz egiteko moldatzen da, baina zozketei buruzko azalpenak ematen dituenean nahiago du gazteleraz aritu: «Lasaiago geratzen naiz, gai horietan ez zaidalako gustatzen gaizki-ulertuak egotea».

Noiz hasi zinen ONCEko saltzaile moduan?

2013an hasi nintzen. Beasainen zenbait astez ordezkapen bat egin nuen eta segituan hasi nintzen orain egiten dudana ibilbidea egiten.

Zer ibilbide egiten duzu?

Normalean goizetan Ordizian egoten naiz, eta gero arratsaldean egiten dut ibilbidea. Zaldibian tarte bat egoten naiz, eta gero hortik Larraitzera joaten naiz. Handik Abaltzisketara. Gero Amezketara eta handik, Alegiara joan aurretik, Route 33tik pasatzen naiz. Beti zenbaki bera jokatzeko dute, 1933, Altuna familia Ogi Berri enpresarekin hasi zeneko urtea. Ondoren, Alegitik Ikaztegietara joaten naiz eta hortik Itsasondo eta Legorretara. Jende askok bizikletan egiten duen ibilbide hori, nik kupoiekin egiten dut. Bost edo sei gauza zehatz egiten ditut herri bakoitzean, bezero finko batzuekin lotuta, adibidez taberna eta denda batzuekin. Ez naiz egoten denbora guztian leku berean, baina gutxi gorabehera ordu tarte berean pasatzen naiz herri bakoitzetik, eta horrela jendeak badaki noiz topatuko nauen. Batzuetan brometan esaten didate egunen batean berandu nabilela, baina saiatzen naiz ordutegi jakin bat betetzen. Bestalde, larunbat goizetan, 09:00etatik 12:00etara, Tolosako Maxi Eroskin izaten naiz. Sagardotegietara ere joan izan naiz, garaia denean, baina pandemiarekin asko jaitsi da azken bi urteotan.

Bezero asko ohikoak izango dira, ezta?

Hain justu, ibilbide bat egitearen gauza politenetakoa jendearekin izaten duzun gertutasuna da. Donostian edo Bilbon lana egitea tokatzen bazaizu, salmentari dagokionez merkatu zabalagoa izango duzu, baina herri txikietan jendea oso eskertua da.

«Ikusmen arazo handiak zituen haur baten gurasoek behin esan zidaten laguntza asko jasotzen ari zirela ONCEren aldetik eta nire lana eskertu zidaten»

Herrira bertara joaten zarela eskertzen du. Gainera, jendeak herrian saltzen ari zaren zenbakia erosi nahi izaten du. Norbaiti tokatzen bazaio bere lagunari edo herritarrari ere tokatzea gustatzen zaio. Batzuetan ere broma moduan esaten didate: «Herrian tokatzen bada eta nik ez badut hartu, badakizu zer izango den

besteak aguantatzea?».

Eta egunero erosten dute kupoia?

Jende askok esaten dit egunero ogia, egunkaria eta kupoia erosten dituela, baina azkenaldian prezioen igoerarekin ez dute horrenbeste erosten kupoia. Ni saltzailea naiz, baina ulertzen dut jendeak jokatzeko duen diru kopurua gutxitzea. Hori bai, jende asko ere badago sariak lortzeko nahiaz aparte helburu sozial batengatik erosten dituela ONCEren zozketetako txartelak. Badago jendea tokatu zaiona familian ikusmenarekin arazoak dituen norbait izatea eta ONCEren bazkidea dena, eta zure lanean animatzen zaitue-na. Adibidez, ikusmen arazo handiak zituen haur baten gurasoek behin esan zidaten laguntza asko jasotzen ari zirela ONCEren aldetik eta nire lana eskertu zidaten. Eta horixe ere da politena, lan honek duen alderik atsegingarrietakoa.

Nabaritzen da, beraz, gaur egun jendeak gutxiago jokatzeko duela?

Jendeak agian zerbait gutxiago erosten du, baina behintzat zer edo zer eramatea gustatzen zaio. Jendeak esaten duen moduan, zerbait tokatzeko arriskua izateko. Gainera, erosten duenak oso adi jarraitzen du zein izaten diren zozketen emaitzak. Internetz begiratzen dute gazteenek, baina nik esaten diet ziurtasun gehien ematen duena, soinean eramaten dudana terminal edo makinatik txartela pasa-

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

tzea dela. Gero, ez badago saririk, askotan brome-tan esaten didate ea makina hori ondo dagoen... Makinak ozen esaten du txartelak saria duela. 200 euro arte makinak ozen esaten du, baina kopuru handi-agoa bada ez du ozen esaten, diskrezioa mantentze-agatik. Sari handiagoa tokatu bada, makinak hori azaltzen dit, eta orduan diskrezioz erakusten diot bezeroari.

Bederatzi urte hauetan sari nabarmenik ematea tokatu zaizu?

100.000 eta 20.000 euroko sariak eman ditut, baina niri gustatzen zaidana da kopuru txikiagoak banatu arren, saria jende askok jasotzea. Tolosako Eroskin gertatu izan zait zenbaki bat saltzea, guztira 55 kupo, asteburuko soldatatzarra deitzen zaion zozketan. Bi euroengatik 200 euro jasotzen dituzu. Gainera, horrelakoetan, ohiko bezero gehienei saltzen diozu. Eta ez da dirutza, guztira 11.000 euro inguru direlako, baina jende askori banatzen diozu eta hori gustagarria da.

Horregatik, zenbaki bera jendearen artean banatzea gustatzen zait. Horrela, zenbaki hori tokatzen bada, jende gehiagori tokatuko zaio. Eta lehen esan bezala, jende askok herri txikietan horregatik eskatzen dit herrian bertan banatzen ari naizen zenbakia emateko.

Jokoak ere arazoak sortu ditzake.

Gu joko arduratsuekin konprometituta gaude. Txalekoan bertan jartzen du. Adibidez, ez diogu saltzen 18 urte baino gutxiago duenari. Bestalde, ikusten baduzu, intuizioz, norbaitek jokoarekin arazoak dituela, egoera hori zaintzen saiatzen gara. Kupoiarekin eta antzeko zozketekin ez da horrelako arazorik izaten. Errazagoa izan daiteke harraskatzeko diren jokoekin. Adibidez, ez dago arazorik lagun batzuk elkarrekin badaude, eta bakoitzak euro bat jartzen badu eta gero ateratzen dena denen artean banatzen badute. Arazoa izan daiteke norbait ikusten baduzu harraskatzeko txartelak ia modu konpultsiboan erosten. Horrelakoak ikustea ez zait gustatzen. Eta ni saltzaillea naiz, baina gehiago saltzeagatik gero norbaiti arazoak sortzen bazaizkio, hori ez da egokiena. Adi egon behar zara, intuizioa erabili, horrelakoak ez gertatzeko. Ilusioa sortzeko gaude, ez arazoak.

Saltzeaz gain, zer beste lan egiten duzue?

Gure beste lana kupoiek eta txartelek saria ote duten begiratzea da. Jende askok ohitura du, oporretan beste leku batera doanean, kupoia han erosteko, edo Donostian, egun-pasa bertara joanez gero. Eta gero edozein lekutan begiratu dezakezu zure txartela sarituta dagoen, edozein saltzaileren makinarekin. Lehen, garai batean, ezberdina zen gure lana, adibidez Ordizian bulego bat zegoelako eta Tolosan ere bai. Orduan eguneko kupoia bakarrik saldu ohi zen, eta

ATARIAN jarrita Goferrri eta Urola Kostako Hivza egunkarretan dloan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.

ez zena saltzen bueltan erama-
ten zen bulegora. Orain guk geuk
egiten dugu itzulketa. Kupoiak
izaten ditugu saltzeko, baina
gero makina ere hor daukagu,
behar izanez gero txartelen bat
ateratzeko.

**Nolatan sartu zinen ONCEn lan-
nean?**

Nire aurreko lana forjako behar-
gin bezala izan zen, Legazpin. 11
urtez aritu nintzen bertan. Auto-
mozioarentzako segurtasun pie-
zak egiten genituen, batzuetan
postura behartuetan, eta urtee-
tan joan nintzen arazoak gara-
tzen, bizkarrezurreko diskoetan
eta sorbaldetan. Errehabilitazio-
ra joaten nintzenean, esaten zi-
daten dagoeneko nekrosia ze-
goela. Baja luze bat izan nuen,
eta garai horretan enpresa lan-
taldea murrizten ari zen, lan
asko automatizatzen ari zelako.
Epaitegian laneko baja bezala
onartu zidaten, eta garaipen
moral bat bezala izan zen. Azke-
nean enpresatik irteera nahiko lagunartekoa izan
zen: nik osasun arazoak nituen, enpresatik bajak
ematen ari ziren, eta gero nik desgaitasunagatik lan
merkatu jakin batean aritzeko aukera izango nuke.
Nik ez dut pentsiorik jasotzen. Gaur egun gutxienez
%33ko desgaitasuna behar duzu ONCEn lan egite-
ko, eta maila hori onartu zidaten Gipuzkoako Foru
Aldunditik. Orain dela 20 urte esan izan balidate
ONCEn egongo nintzela lanean, ez nuke sinistuko.
Lehen ONCEn denak ikusmen desgaitasuna zuten.
Eta orain ere hainbat kidek badute, asko kabinetan
kupoia saltzen daude.

Orain lan babestua deitzen zaio Gureak, ONCE eta
horrelako erakundeen bitartez egiten den lanari. No-



«Orain hogeitau urte
esan izan balidate
ONCEn egongo
nintzela lanean,
ez nuke sinistuko»

labait zuretzako egokituagoa
dagoen lana da. Aurreko lanean
sorbaldan mugitzen nuen modu
mekanikoan. Gaur egun oinez
dezente ibiltzen naiz, baina ibil-
tzea da, ez nago kolpeak emate-
n pieza batzuei.

**Eta orain nola ikusten duzu
zure lana?**

Nik positiboki baloratzen dut.
Lan guztietan bezala, hasten
zarenean ziurgabetasuna duzu;
eta ni berez nahiko urduria naiz,
baina pixkana egokitzen joaten
zara lanera. Bederatzi urte dara-
matzat hemen, eta ez dakit beti
ibilbide bat egiten lan egingo
dudan. ONCEk erabakitzen du
nola banatzen diren lanpostuak.
Bestalde, nik ez dut jasotzen
saltzen dudako kupoi bakoitzetik
portzentaje bat. Soldata bat
dugu eta gero orokorrean sal-
tzen denaren arabera komisio
batzuk izaten dira, baremo bat-
zuen arabera.

**Lanak jendearekiko sortzen
duen gertutasuna gustatzen zaizula aipatu duzu.**

Hori da alderdi positiboetako bat. Jendearekin
denbora elkarbanatzean, konfiantza loturak sortzen
dira, eta tarteka jendearen poza ikusten duzu sari bat
tokatzen zaionean. Bezeroekin brometan aritzen
naiz eta beraiek nirekin ere bai, bakoitzaren nortasu-
naren arabera. Gustatuko litzaidake sari asko eta ga-
rrantzitsuak banatzea, baina hori ez dago nire esku,
nik ezin dut bonboan eskurik sartu. Jende bakoitza
mundu bat da, eta ez zaienean tokatzen batzuk asko
dezepzionatzen dira. Baina beste batzuk, ez bazaie
tokatzen ere, esaten dute bi euro direla eta uste dute-
la ondo erabili dituztela. Azkenean, edalontzia erdi
beteta edo erdi hutsik ikustea da.



AITOR ATXEGA
MANEX BAT

Lurra nekazaritza laborantza

Zuberoara hurbiltzen garelarik paisaia da seguru asko hauteman edo sumatzen dugun lehen ezberdintasuna gure inguruetatik. Etxalde eta etxe txikiak, bide zabal eta garbiak, laborantza tresneria eta makineria astuna edonon, larre txukun-txukunak, abereak... Ez dugu herri handirik pasako (Maule-Lextarre hiriburu den partetik salbuespen da noski), ez dugu gurean ditugun etxe bloke asko ikusiko... Ez dugu semaforoetan geratu beharrik izango, ez dugu udaltzainik ikusiko, ez dugu taxirik entzungo, autobusik apenas, ez dugu zaratarik entzungo, bost egunean behin kamioren bat sumatuko dugu, denboran atzera eramaten gaituzten C-15 eta R4 haiek...

Zuberoara sartzen garenean landa eremu baten erdian sentitzen gara instant batean eta hari honi tira nahi izan dio manexak: lurrari, nekazariari eta laborantzari.

Ahalik eta informazio zuzenena jaso asmotan, laborari baten bila ibili da manexa eta ate batzuk jo ostean Peio Quihillatengana iritsi da. Peio laboraria da eta urte asko daramatza lanbide honetan. Peiorekin hitz egin eta honako haiek bildu ditut. Ea ongi ekartzeko modua egiten dudan.

Zuberoa txikia dela ondo dakigu, Euskal Herriko herrialde txikiena hedaduraz nahiz biztanleriaz. 814km² bakarrik ditu eta 13.000 biztanle bueltan da gaur egun. Dezente harritzen duen lehen zifra honako hau da: 600 etxalde dira bizirik gaur egun Zuberoan (baserri litzateke Euskara Batuaz gehien hurbil daitekeen hitza). Badirudi gehiago ere bazirela orain urte gutxi, baina bitxia da ez direla galdu gurea bezalako inguru industrializatueta galdu diren adina.

Langileak, oso ehuneko handian, etxaldean lan egiten dute soilik. Oso txikia ei da etxaldetik kanpo beste nonbaiten lan egiten duten laborarien kopurua. Garai batetik hona etxaldeak handitzen ari dira pixkanaka-pixkanaka baina batez beste 30 hektareako barrutiak gobernatzen dituzte. Itxura batean barruti nahiko handiak ez oso ustiapen handientzako eta Peioren esanetan hau da bazterrak hain garbi eta txukun ikusi eta mantentzearen arrazoia.

Lurraren kudeaketaz hitz egiterakoan beharbada honako hau iruditu zait aipagarriena: Zuberoako etxaldeak pribatuak dira ia erabat, baina bortuak (mendiak), kolektiboak, herriarenak edo *Xiberoko Zindikatarenak* dira. Herri bakoitzak, herri bezala parte hartzen du sindikatu honetan. Herritarrek beraien beharren gainean deliberatzen dute eta herrian, taldean, erabakitzen dute laborarientzat egin nahi diren gauzak. Hots, inbestimenduak, bideak, basoak... Asmoak eta erabakiak gauzatzen direnean, laborariek eskubide osoa dute berauetara joateko ardi eta behiekin. Etxalde gehienetan behiak eta ardiak ikus ditzakegu. Lau ardi-leinu dira gehienetan. Bertakoak, buru xuria, buru gorria eta buru beltza dira, eta kanpokoak *lacaune* (esne gehiago ematen du honek). Osau Iraty sor-markadun gazta egiteko bertako ardia erabili behar izaten dute jakina. Behietan *blonde d'aquitaine* arraza da erabiliena.

Lurra eta honen gainean eraiki direnak ere kolektiboak dira. Zuberoako bortuetako txabolak edo olak, herriarenak dira; alegia edonork erabil ditzake. Quihllatek dioenez, lau, bost, sei edo zazpi abeltzainek erabiltzen dute elkarrekin normalean borda edo ola bat; erabili eta kontu egin ere bai. Aldika joaten dira



nekazariak bertara kabala (ganadua) zaintzera. Oso zuberotarra da erabilpen mota hau nonbait. Berezi-tasun hau ez da ez Behe Nafarroan eta ez Biarnon.

Ondoren laborantzari buruz galdetu diot Peiori eta laborantza industrial gutxi dela dio. Ia laborari denek belarra erabili ohi dute kabalari jaten emateko. Hala ere, gutxi izan arren, badira esne ardiak intentsiboan hazten dituztenak. Maule-Lextarre inguruan arto pixka bat ikus daiteke Peioren esanetan eta ez da transgenikoa; kabala hazteko egiten da ia erabat. Iparralde osoan hamar edo hamabi laborari ari dira beraien hazi propioa erabiltzen ekoizpen berezietarako: talo-irina egiteko, artahia egiteko...

1980an Euskal Laborarien Batasuna sortu zen iparraldean laborantza txikia eta mendikoa hobeto defendatzeko asmotan. Tartean gauza asko izan bazen ere, labur dezadan esanaz, Euskal Herriko Laborantza Ganbara sortu zutela gerora. Egitura honek laborantza iraunkorra du helburu nagusi. Esan nahi baita, lan baldintza onak, inguruarekiko errespetua, kalitatezko ekoizpenak... Guzti honen inguruko formakuntza oso onak eskaintzen ditu laborarientzat.

Zuberoara sartzen
garenean landa
eremu baten
erdian sentitzen
gara istant batean

Laborarien kezka nagusienetakoa klima-aldaketa dela esan du. Urteak gero eta lehorragoak dira eta ondorioz ez dituzte lortzen aurreko urteetako belar eta arto uztak. Honek diru gutxiago dakar jakina, eta eransten zaio 800-900 euroko erretreta-sari nahiko txikiari. Bi arazo nagusi ditu laborantzak Quihillalten ustez. Lehena irabazien gaia da; soldata aski baxuak, industriakoen aldean. Bigarrena bizitza-erosotasuna: laborariek ere nahi dituzte deskantsu-egunak eta oporrak, baina nekazaritzan ez da errazena. Honegatik gazte askok ez omen du gurasoen bidea jarraitzen.

Bukatze aldera galdetu diogu ea nola den nesken egunean (larunbata) Maule-Lextarren egiten den azokaren osasuna. Peiok dio sona ona duela laborari asko joaten delako bertara. Azken urteetan indartu da zuzenean saltzea eta horregatik gero eta laborari gehiago antolatzen da herriz herri haragia, gazta, arrautzak eta abar saltzeko zuzenean.

Zaila da hain landatarra den gizarte bat hain lerro gutxitan azaltzea, beraz ohiko aholkua bukatzeko: joan, ikusi eta dastatu.

«FILMA EUSKARAZ IKUSITA, BALITEKE EUSKARAZ AMETS EGITEA»

MARIAN GALARRAGA

TINKO EUSKARA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Filmak euskarara bikoizteko «bide bat» hasi zuen Galarragak; «egin beharreko bidea erakutsi izanaren sentsazioarekin» dago, eta orain, atzetik datozenek egin beharko dutela dio.

Irati Saizar Artola

Zinema atarrietatik pasa eta euskaraz film bakarra ere ez egoteak sortutako ezinegona baretu nahian sortu zuen Tinko Euskara Elkartea, 1994an, Marian Galarragak (Altzo, 1947). REC grabaketa estudioa ere eratu zuen handik gutxira, bikoizketak egiteko. Filmak euskarara bikoizten eman du bizitzaren zati handiena, eta erretiroa hartuta badago ere, Tinkoko lehendakaria izaten jarraitzen du.

Nor da Marian Galarraga?

Altzon jaiotakoa, munduan zehar ibili dena eta berriro Altzora bueltatu dena. Hementxe lortu dut bakea, halako batean. Makina bat gauza egin ditut nire bizitzan, baina beti izan dut ipar, erretiroa baserri batean egingo nuela, baratza txiki batekin. Eta oraintxe nago nire ametsetako momentuan eta lekuan, hementxe bertan.



Munduan zehar ikus entzunezkoen inguruan beti?

Ez beti. Idazkari ikasketak egin nituen, eta horretan jardun nuen. Administrazio kudeatzaile izateko bi liburur irakurri, Madrilén azterketa bat egin eta gestoria batean hasi nintzen lanean, Andoainen, gestore moduan. Han ari nintzela atxilotu egin ninduten, eta ezin izan nuen han jarraitu. Jazarri ninduten, telefona ziztatu zidaten... Han ezin nintzen egon, eta, une har-

tan, egunkarian lan eskaintza bat ikusi nuen: Euskal Telebista sortzeko bikoizle eta esatariak behar ziren. Nire artean esan nuen: «Zer da ba bikoizketa?». Nik ordura arte uste nuen Marlon Brandok gazteleraz oso ondo zekiela, ez nekien zer zen bikoizketa. Telebista bat euskaraz egin zezaketetik ere ezin nuen sinetsi. Baina tira, euskaragatik eta euskararekin lotuta zegoen guztiagatik aurrera egin nuen. 900 pertsona ingu-

ru aurkeztu ginen San Tomas Lizeoan, eta 60 pertsona hartu zituzten, 30 esatari lanetarako eta beste 30 bikoizketarako. Bartzelonako ikasle onenak etorri ziren irakastera. Irakasle moduan hemengo jende jantzia ere aritu zen: Xabier Lete, Xabier Mendiguren, Xabier Elorriaga... Hortxe hasi ginen.

Zure kasuan bikoiztaile?

Bai, aurpegiarik ez nuen eman nahi, ahotsa jarri nahi nuen.

Momentu horretan hasi zinen EITBn lanean?

Bai, bikoizle moduan hasi nintzen. Gero Galizian ere izan nintzen galegoei bikoizketa erakusten. Eta ondoren REC sortu genuen, bikoizketak egiteko.

Euskararen alde lan egin nahi zenuen, beraz.

Bai, argi nuen. Txiki eta Otaegi akabatu zituztenean hasi nintzen begiak zabaltzen. Beti izan dut argi nire seme-alabei nik jaso dudana Euskal Herria baino hobea utzi nahi diedala. Euskal Herri independentea, sozialista eta euskalduna. Ezertan hasi baino lehen atxilotu eta bortizki torturatu ninduten. Zerbait egin nahi nuen Euskal Herriaren alde, eta euskarari heldu nion, hor ikusi nuen bidea. Zer daukagu guk bestetatik bereizten gaituena? Euskara. Horri heltzen badiogu, nahiko independenteak izango gara.

Tinko Euskara Elkarte sortu zenuen 1994an. Zein kezka zenituen?

Guk bereziki EITBrako bikoizten genuen, eta bideoak eta DVDak ere bikoizten genituen. Areto komertzialetan, ordea, ez zegoen pelikula bakar bat ere euskaraz. Zine areto batetik pasatzen nintzen aldiro ikusten nuen euskarazko eskaintzarik ez zegoela. Horri bueltak ematen hasi nintzen. Ordurako, EITBko erosketak egiten zituztenak ezagutzen nituen, eta haiek bazekiten non zeuden pelikulak, zein banatzailek zeuzkaten, eta EITBrako saltzen bazituzten, zergatik ez zinemetarako? Hor hasi ginen lanean, zaila zen arren. Bartzelonan zeuden banatzaile garrantzitsuenak. Haiekin harremanetan jarri eta lortu genuen pixkana lanean hastea.

Hortik dator Tinko Euskara Elkarte.

Tinko banatzaile moduan, bikoiztu genuen lehen fil-



ma *Alargunen gailurra* izan zen, eta zine aretoetan jarri genuen. Bilbon estreinatu zen. Horixe genuen helburua: areto komertzialetan zinea euskaraz ikusi ahal izatea.

Nolako lana da hori?

Oso-osoa garestia da pelikula baten eskubideak lortu, bikoiztu eta banatzea. Aurrekontu izugarria eskatzen du. Lehen bi urteetan Eusko Jaurlaritzako Kultura sai-

lean eta Hezkuntza sailean babesia bilatzen saiatu nintzen. Ez pentsa aurrerapen gehiegi izan genuenik. Proiektu bat egin behar izan genuen, lau ardatz zituena: batetik, profesionalak behar genituen bikoizteko; bestetik, filmak behar genituen; hirugarrenik, banatu eta propaganda egin behar zen; eta, azkenik, diru laguntzak beharrezkoak ziren. Lau hanka horietakoren bat gabe ezin genuen aurrera jarraitu. Eusko Legebiltzarrean aurkeztu genuen proiektua, eta diru laguntza bat eman ziguten. Horrekin martxan hasteko aukera izan genuen.

Dirurik gabe gauza gutxi izango da egiterik.

Tinko utzi nuenean, nire semeak -Iñigo Arandia- hartu zuen elkarrearen ardura. Eta ikusten dut nik pasa nituenak baino okerragoak pasatzen ari dela bera. Gauza asko ari dira lortzen, Pantailak Euskaraz mugimenduan ere sartuta daude, eta teknologia berriei buruz ere gehiago dakite orain. Bizitza aurrera doan bezala eta gizarteak aurrera egiten duen heinean, eta teknologia berritzen den bitartean, euskarak hor joan behar du, denekin batera. Atzean geratzen bada, jai daukagu.

28 urte pasa dira Tinko sortu zenuenetik. Atzera begira, nola ikusten duzu guztia?

Harrituta nago, nola den posible 28 urte pasatzea. Atzo izan balitz bezala gogoratzen ditut hasierako egunak. Egoerari begira ordea, nik nahi baino aurre-rapauso gutxiago edo txikiagoak eman direla ikusten dut. Eta horrek asko amorrarazten nau. Proiektu polita eta txukuna zen, oso ondo bideratuta zegoena, baina nik ez dakit zer interesengatik desbiderarazi egin dute. Baina tira, behintzat trenbidearen errailak jarri genituen eta atzetik datozenak hori erabiliz aprobetxatu behar dute orain.

Zuek izan zineten filmak euskarara bikoitzen hasi zineten lehenak?

Gurekin batera, beste bi etxek ere egiten zuten lan hori. Eta oraintxe, uste dut, bakarra geratzen dela. Hasteko, EITBk bikoizketak kendu ditu, eta ez dago lanik, ez jenderik. Noski, bikoizleak lanbidea behar du, eta ez bazaio lan jardunaldia bikoizketarekin be-



tetzen, beste lan batzuk aurkitzen hasiko da. Eta beste lan batean hasi eta gero nola ekarriko duzu berriro bikoizketara? Horrela galdu dira bikoizle asko eta asko.

Zer ikasi behar izaten da bikoizle izateko?

Teknika bat da. Hasteko, euskarazko kasuan, euskaraz ondo hitz egitea baloratzen da. Ondo ahoskatzea ere bai, eta esaten duzunari zentzua ematea; ez da irakurtzea soilik, esan egin behar da. Irakasten denbora luzez aritu naiz, jende askori erakutsi diot bikoizten, eta segituan antzeman izan dut nork balio duen eta nork ez.

Gaztetan euskarako klaseak ematen nituen Tolosan, gau eskolan, eta horrek ere asko lagundu zidan.



Nabari zen banekiela euskaraz irakurtzen eta gainera adierazkortasuna nuela. Irakasleak zirenak edota antzerkian zebiltzanak, testua menperatzen genuenak hasi ginen mundu horretan lanean.

Itzuli eta gidioa idaztearena bikoizlearen lana da?

Ez, itzultzaileak daude horretarako. Itzuli egiten dute eta itzulpen horren zatiak egiten dira. Zati bakoitza behin eta berriro jartzen dute pantailan, ikusi eta errepikatu, eta ikusi eta errepikatu, harik eta ondo geratu arte. Zuzendariok, ordea, esaldiak egokitze

koa Los Angelesen eta ni neu hemen nenbilen, Barzelonan eta Madrilan; zer pelikula egiten ari ziren kontrolatzen genuen, eta momentuan jakiten genuen pelikula hori bikoiztea komeni zitzaigun edo ez. Los Angelesen Jessica Postigo donostiarra zegoen, bere senarrak Warnerren lan egiten zuen, eta bazekien zer film zetorren edo zer egiten ari ziren. Ameriketako Estatu Batuetan egiten ziren pelikulek Espainian banatzaile bat lortzen zuten, eta nik banatzaile horrekin negoziatu behar izaten nuen film hori euskaraz ere bikoiztua izan zedin. Suitzan Jose Luisen lehengusu bat geneukan, oso pertsona leiala eta konprometua euskararekin eta Euskal Herriarekin. Oso pelikula politak lortzen zizkigun, ez zirenak oso komertzialak, eta Espainian banatzaileak ez zeukatenak. Beraz, guri zuzenean banatzen ziguten. Horrela, euskaraz bakarrik bikoizten zen, gaztelaniaz ere ez zegoen, eta Euskal Herrirako bakarrik izaten zen.

Eta behin bikoiztuta, nola ikus zitekeen?

Lehenik areto komertzialetan jartzen genuen, baina ederki kostata. Ez pentsa areto komertzialetako nagusiak euskarazko filma jartzearen alde zeudenik. Ez zuten ezertxo ere jakin nahi. Kontua da, eskola orduetan, Tinkotik, eskolako haurrak hartu, zine aretora eraman eta filmak ikusten genituela. Urtean zehar diru mardoa uzten genuen hor; izan ere, areto komertzialak alokatu egiten genituen. Eskola orduetan joanda, ez zitzaien ezer kostatzen aretoei, goizetan hutsik zutelako aretoa, eta horren truke ordutegi komertzialetan euskarazko filmak jartzeko eskatzen genuen. Gainera, Eusko Jaurlaritzako diru laguntza lortzeko behar-beharrezkoa zen areto komertzialetan estreinatua izatea pelikula.

Eta arrakastarik bazuten?

Ni konturatzen nintzen, guk jarritako euskarako filmekin zine aretoak bete egiten zirela. Propaganda ere halakoa egiten genuen. Esaterako, gogoan dut behin Warnerrera benetako behi bat eraman genuela, hegan egiten zuen behi baten istorioa kontatzen zelako film horretan. Askok saiitzen ginen zabaltzen, eta aretoa betetzen genuen, kexu ziren arren.



aukera genuen; esaldi bat luzeegia bazen tarte batean sartzeko, motzagoa zen esaldi batekin ordezkatzen genuen.

Zuek bikoizketa lana REC enpresan egiten zenuten?

Jose Felipe Auzmendi, Jose Luis Rubio, Patxi Barco eta laurok sortu genuen. Barco utzi egin zuen segituan eta beste hirurok jarraitu genuen proiektuarekin. Garai hartan, Jose Felipe telebistako gizona zen, goiz, arratsalde eta gau zegoen. Eta Jose Luisek eta biok kontuak egiten genituen, enpresa aurrera eramaten aritzen ginen. Bikoizketari dagokionez, Jose Felipek eta biok bikoizketak egiten genituen eta Jose Luis teknikoa zen, oso ona gainera.

Film bat bikoizteko zer prozesu jarraitu behar da?

Garai hartan ikuskatzaile bat geneukan Suitzan, bes-

Mundu konplikatua da?

Oso konplikatua da. Zine aretoetakoek banatzaileekin izugarritzko konpromisoak dituzte. Adibide batekin azaltzearren: *Harry Potter* lortzen duen banatzaileak aretoari pelikula uzten dio, baina trukean bere beste hamar film jartzeko eskatzen dio, ezertarako balio ez dutenak. Horrekin betetzen dituzte ikuskizunen sailak.

Zein da Tinkoren gaur egungo jarduna?

Gaur egun Zineuskadik dauzka pelikulak eta berak bikoizten ditu. Dauzkaten pelikuletatik areto ez komertzialetarako zein pelikula komeni zaigun ikusten dugu, eskola orduetan ikasleei jartzeko. Balore batzuk lantzen dituzten filmak aukeratzen ditugu, ez diegu edozein pelikula jartzen haurrei. Gainera, material didaktikoak ere sortzen ditugu, filmarekin batera haurrei material hori eskaintzeko. Herriz herri eta ikastetxez ikastetxe gure eskaintza, gure programa zein den erakusten dugu, eta eskoletatik izena ematen dute. Irteera hori antolatzeaz arduratzen gara. Horrela, ikastetxetik irten eta zinema aretoetara joaten dira ikasleak, bestela, etxean bideo bat ikustearen parekoa litzake. Haurrek aisialdiko aukera moduan ikustea nahi dugu, euskararekin eta zerbait politarekin lotzeko gero.

Ikasle horientzat zine aretora joan eta zerbait euskaraz ikusi ahal izatea garrantzitsua da?

Hiruzpalau urteko haurrek bizitzan lehen aldiz areto batera sartu eta euskarazko pelikula bat ikusten zutela ikusteak pozten ninduen gehien. Hori niretzat sekulakoa zen. Pentsatzen dut haur horiek beti gogoratuko dutela zinea eta euskararekin lotuko dutela, bizitzako lehen filma euskaraz ikusi dutelako.

Esana duzu, haurrek filmak gazteleraz ikusten badituzte ametsak ere gazteleraz egiten dituztela.

Eta horrela da. Eta helduoi ere gertatzen zaigu, azken gauza erdaraz ikusi badugu eta jarraian gure pentsamenduetan murgiltzen bagara, agian gaztelaniaz pentsatuko dugu. Eta film bat ikusteak haur batean eragin handiagoa du, pelikula horretan ikusitakoa amestu egiten dute askok, eta elkarrizketak



euskaraz entzun badituzte, baliteke euskaraz amets egitea. Eta euskaraz amets egin eta pentsatzen baduzu, erraztasun handiagoa izango duzu euskaraz hitz egiteko ere. Nik uste momentu honetan garrantzitsuena horixe dela. Euskaldunak euskaraz baldin badaki, euskaraz egin behar du, bestela ez goaz inora. Euskara da euskaldunok daukagun altxor bakarra.

Eta bide horretan zenbateraino da garrantzitsua euskaraz filmak ikusteko gutxieneko aukera bat egotea?

Ezinbestekoa da. Horixe egiten ahalegindu gara hasiera-hasieratik. Nire helburua honakoa zen: hamar film erdaraz jartzen bazituzten, beste hamar





«Bizitza aurrera doan bezala, euskarak ere hor joan behar du, denekin batera»

Bisset edota Carmen Maurari jarri nien nire ahotsa.

Kontzentrazio handia eskatzen du?

Hasieran bai, baina gero jolas-tu egiten genuen. Gogoan dut, Iñaki Beraetxerekin jolasean ibiltzen ginela, ea begiratu gabe nor zen gai ondo egiteko. Oso ondo pasatzen genuen.

film euskaraz ere izatea. Lekutan geratu da hori, baina tira, zerbait behintzat lortu dugu. Bidea erakutsi dugu, nondik abiatua badago, gero, atzetik datozenek egin beharko dute.

Zerk egiten du huts?

Niri euskara garrantzitsua iruditzen zaidan moduan, etsaiari ez zaio hala iruditzen. Ideologiarekin lotuta dagoela esango nuke. Euskarari laguntzea errotik moztu nahi dute, ez diote inolako babesik ematen; izan ere, pentsatzen dute zenbat eta euskaldun gehiago izan orduan eta boto gutxiago jasoko dituztela. Beraz, euskarari ezta urik ere.

Euskaraz kontsumitu nahi duen jendea badago, ordea.

Hori da. Ikusleak eta kaleko jendeak har dezala bere bezala euskara, eta esan dezala hortik ez dela mugituko: «Ni euskalduna naiz eta nire hizkuntza euskara da, eta puntu». Hori da nire postura ere momentu honetan.

Bikoiztaile aritu zinenean, nori jarri zenion ahotsa?

Jende askori [Barreak]. Besteren artean Jacqueline

Pertsonaia batetik bestera ahotsa moldatu, egokitu behar izatea lan erraza da?

Nik filma serioagoak edo dramatikoagoak nahiago ditut. Jende asko dago espezialista dena hurrei ahotsa jartzen. Eta marrazki bizidunak bikoizteko primerako jendea dago. Nik, adibidez, ez dut balio marrazki bizidunak egiteko. Nahiago dut pelikula batean aritu, dramatismo guztia jarriz.

Pelikulak famatu egiten dira, baina bikoizle gutxi zarete ezagunak.

Aktoreek aurpegia ematen dute eta ikusi egiten ditugu. Ahotsa, ordea, atzetik jartzen duzu, pantailaren atzean zaudela.

Zein film bikoiztu zenuen azkenekoz?

Ez dut gogoan zehazki zein izan zen. Gogoan daukadana nire lehen esaldia izan zen. Bartzelonako irakasleek irakatsi ziguten bikoizten, eta gazteleraz egiten genuen. Ospitaleko gela batean, kamioi gidari bat zaurituta zegoen eta ni bere emaztea nintzen. Atea jotzean nik esan nuen: «*Hola Jade, pasad*». Nonbait ondo egin izango nuen. Euskaraz bikoiztu

nuen lehen filma, berriz, *Marianne Xarmanta* izan zen, EITBrako.

Tinkok EITBrekin zein harreman zuen?

Hasiera batean ona. Esaterako, Alemaniatik zetozen filmen eskubideak zine aretoetarako, eskola haurrentzako, bideorako eta telebistarako erosten zituzten. Orduan, zati bat EITBri saltzen genion, telebistan hiru emanaldi emateko. Garai hartan nahiko txukun ateratzen zitzaigun erosketa hori. Baina gero bikoiztutako pelikularik ez jartzen hasi ziren EITBn eta ez genuen zereginik izan.

Bi urte atzera eginda, bikoiztaileak greban egon ziren. Zerbait lortu dute?

Gaur egun borrokan jarraitzen dute. Bieuse Bikoiztaile Euskaldunen Elkarteak sortu zen, Pantailak Euskaraz mugimendua ere hortxe dago, eta hor dabilta burubelarri. Oraintxe lege bat sortu nahian ari dira, euskaren ikus-entzunezkoen ingurukoa. Borrokan dabilta, beti bezala. Hemen inork ez du ezer oparitzen.

Bada betiko beste gai bat: azpidatziak edo bikoizketak. Zuk zer iritzi duzu?

Nik niretzat nahiago dut azpidatziak. Nik uste pelikula bat bertsiotzita. Nik uste pelikula bat bertsiotzita. Baina ulertzen dut ikuslearentzat erosoagoa dela pelikula bat bikoiztuta ikustea, azpidatziak irakurtzeko eta jarraitzeko erraztasun handia izatea beharrezkoa delako.

«Helburua zen gaztelaniazko hamar filmen ondoan hamar euskarazko egotea; lekutan geratu da»

Bikoizketak bilakaerarik izan du, kalitate aldetik, esaterako?

Espainiako Estatuan dagoen bikoizketa zoragarria da, oso-oso ondo bikoizten dute. Eta hemen asko irabazi eta hobetu dugu hasiera hartatik. Kontua da, hasieran, lan mordo zegoela. Telebistan eskaintzeko ordu erdiko edo ordubeteko bikoizketa bat egitea hamabost egun kostatzen zitzaigun, eta ordubete janda zegoen. Hasieran txurroen moduan egiten genituen, eta kalitatea ezin izaten genuen behar bezala zaindu. Garrantzia izugarria ematen genion gauzak ondo egiteari, pertsonaia bakoitzari ondo zihoakion ahotsa aukeratu nahi izaten genuelako, eta ondo landu.

Eta zein bilakaera izango du aurrerantzean bikoizketak?

Guk erakutsitako bidea hortxe dago, hori hor geratuko da. Tinkoren kasuan bide hori eskura daukate, eta badoaz beraiek ere bide berriak irekitzen. Erretiroa hartuta nago orain, eta bakean biziko naiz Altzon.



ESNEKI

EUSKAL HERRIKO GAZTA ETA ESNEKIEN AZOKA

Azaroak 5 esneki.eus




Mikel ALTZARIAK

Usabal Industrialdea, Iruña Etorbidea, 22G
20400 TOLOSA - Gipuzkoa T./Faxa: 943 67 55 36

www.mikelaltzariak.com • mikelaltzariak@gmail.com

'50 urte zuekin'



saridunak

Atarikideentzat
saski bat dugu



Errigorako
saski berdea

• Jose Luis Fernandez (Tolosa)

Atarikideentzat
bi sarrera ditugu



Guuk Gipuzkoa Basket
vs Zunder Palencia

Azaroak 6, igandea • 12:00
Angulas Aginaga Arenan

• Miren Lasa (Tolosa)

Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu



Azaroak 5, larunbata
17:00etan
Irungo Ficoban

• Norberta Lobregat (Gaztelu)

Saria eskuratzeko Ataria jarriko da zuekin harremanetan

DIRULAGUNTZAK ETXEBIZITZA ALORREAN

Etxebizitza politikak lehenasunezkoak dira, tolosarrei etxebizitza aukera berriak eskaintzeko.

Zentzu horretan, Tolosako Udalak lan lerro ezberdinak ditu abiatuta. Alokairu babestuaren aldeko apustuan, etxebizitza berriak eraikitzeko hirigintza garapena sustatzeaz gain, dirulaguntza lerro berriak ere sortu dira, etxebizitza hutsak mobilizatu eta alokairura bideratzeko eta alokairu ordainketa errazteko.

Herritarrek eskura dituzten LAGUNTZAK:



— **1** —
Hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko udal-laguntzak, Eusko Jaurlaritzak ematen dituenen osagarri

—
Tolosako Udalak zure etxebizitza hutsa erreformatzen lagunduko dizu alokairuan jartzeko.

Laguntza eskatzeko epea: ZABALIK

— **2** —
Alokairu ordainketa errazteko laguntzak

—
Alokairuan bizi bazara, bi laguntza dituzu eskura:

- **Udal-dirulaguntza** (Gazteei, guraso bakarreko familiei, alargune, bananduei... zuzendua)
- **Gaztelagun** (Eusko Jaurlaritzaren laguntza lerroa 18-35 urte bitarteko gazteentzat)

Eskaera epea: 2023ko urtarrila

Etxebizitza laguntzen inguruko INFORMAZIO SAIOAK:

Azaroak 9. Pleno aretoan, 18:00etan
Azaroak 15. Plaza zaharra, 11:00-13:30 eta 18:00-20:00
Azaroak 17. Lopez Mendizabal plaza, 11:00-13:30 eta 18:00-20:00
Azaroak 22. Musika eskola aurrean, 11:00-13:30 eta 18:00-20:00

Informazio gehiago



Herriz herri atera dituzten irriak ikusteko aukera

‘Irrineta’ eta ‘Irrikleta’, Mattin Gizarte Abenturakoek borondatez egindako bi bidaia dira, Euskal Herriko haur eta nerabeekin jolastuz, haien irriak ateratzeko.



azko udan, furgoneta hartu, eta bederatzi egunez Euskal Herriko zazpi herritan egin zuten geldialdia Mattin Gizarte Abenturako kideek. Bertako haur eta nerabeekin espontaneoki jolasak eginez, «irriak eta sudur gorriak banatzen» pasa zituzten egunak. *Irrineta* deitu zioten proiektuari, eta dokumental batean jasota dauzkate bizipenak. «Erakutsi nahi dugu, zer-bait lortu nahi bada, eta borondatea badago, gauzak hartu, abiatu eta lortu daitezkeela».

Izandako arrakasta ikusita, aurten berriro errepikatu dute irteera, baina, aurtengo kasuan, bizikletaz osatu dituzte etapa guztiak, karro batean materiala hartuta. Kasu honetan, *Irrikleta* izena hartu du proiektuak. «Iaz, Asteasutik Bizkaia aldera atera ginen, eta aurten Ipar Euskal Herrira joan gara lehenik, gero Le-kunberritik barrena Asteasura bueltatzeko». Astebe-te pasa dute, «helburu berarekin, irriak ateratzen». Bidaia irudi bidez jasotzeko «prestatuago» joan dira aurtengoan, eta bigarren dokumental bat osatzen ari dira, Gabonen aurretik aurkezteko. Dokumentalarekin batera solasaldi moduko bat eskaini nahi dute, hitzaldi formatuan, Gipuzkoako zein Euskal Herriko udalerrietan proiektua ezagutzera emateko. «Bizitu ditugun esperientziak partekatzea da asmoa». *Irri-*

kleta-ko etapan laburpenak ikusi nahi dituenak Instagrameko perfilean aurkituko ditu, *reels*-etan.

Udalerrri ezberdinetan aurkeztu eta gero, *kedada* erraldoi bat egin nahiko lukete, parte hartzaileekin jolasak egin, proiektuaren inguruko iritziak jaso eta egitasmoaren inguruan hitz egiteko.

Lan eta lan

Gainerakoan, lan eta lan ari da Mattin Gizarte Abentura. Esaterako, Asteasun, Olaberrian, Altzon eta Alegian haur, nerabe, heldu eta hirugarren adinekoekin prozesu parte hartzaileak ari dira egiten. «Helburu desberdinekin egiten ditugu, protagonisten ahotsa entzun eta beraien nahiak aurrera eramaten laguntzen diegu ondoren; izan daiteke lokal bat lortzeko ahalegina, edota herrian beraien parte hartzea handitzeko ahalegina ere».

Ludotekarekin eta gizarte abenturak eskaintzen dituen ekintza ezberdinekin ere aurrera jarraitzen dute. Hurrengo udarako, beste proiektu berritzaile bat daukate buruan: Bibak asteburua. Inguruko mendietan, haur, nerabe, heldu eta familiek mendiko esperientzia bat bizitzeko aukera izatea, lo zaku batekin soilik, bertan lo egiteko aukera izanez. Tartean, jolasak, istorioak eta bestelako eskaintzak ez dira faltako.




ADUR GOROSTIDI
HARITUZ-EKO KIDEA

Haritz Xalbador

Doinua Manuel Narruk atzo esan dit B

Haritz Mujika ene laguna
gure ttikia zera zu
Gasteiza kantuz joan zinen da
geroz zenbat enbarazu
lehen agurra gustatu ez ta
kritikan ari jotasu
txistuka hartu zaituzte baina
oraindik maita itzazu



"Euskarak lan esparruan bere tokia behar du. Horregatik Euskaldian bost argune sortuko ditugu".

Nerea Ortiz



HITZEZ EKITEKO GARAIA

EMAN IZENA!
euskaldia.eus



2022ko AZAROAREN 18tik
ABENDUAREN 2ra

AMASA FESTAK 22

Azaroak 9

17.30 Umeentzako ipuin kontalaria, Haizea Loira.
19.00 TXUPINAZOA eta Martina sorginaren jaitsiera Txasko eta Debalde trikitilariak alaiturik.
ONDOREN, buruhandiak.

Azaroak 10, Gazteen eguna

06.00 Gazteen gosaria Amasa kafetegia, trikitilariak alaiturik.
14.30 Gazteen bazkaria Uxo-Toki elkartearen.
17.00 Soka dantza eta aureskua plazan.
21.00 Gazteen afaria Iturri-goxo jatetxean.

Azaroak 11, San Martin eguna

10.30 Meza Santua.
12.30 Aizkolariak, Axel Larrañaga eta Unai Zabala, trikitilariak alaiturik.
17.00-19.00 Puzgarriak frontoian.
Ondoren Txokolate beroa.
19.30 Amasako XXX. Bakailu Lehiaketa Iturrigoxon.
23.30 Dantzaldia Laket aldearen eskutik.

Azaroak 12

11.00 Ume krosa/ 6. mailara arteko umeentzat.
12.00 Amasako II. traktore tiraketa, herriko gazteen eskutik.
14.00 Herri Bazkaria.
18.30 Bertso saioa, elizan.
Bertsolariak, Alaia Martin, Jexux Mari Irazu, Beñat Iguaran eta Oihana Iguaran. *Gaijartzailea*, Imanol Artola "Felix".
23.30 Dantzaldia Lajotz aldearen eskutik.

Azaroak 13

10.00 Aranzabi erakusART azoka.
18.00 Herri kirolak Amasako herrikoen artean.
Ondoren Martina Sorginari agurra.

AMASA-VILLABONA



Villabonako Udala



Iragarri zurea gurean

* Atarikideentzat eskaintza bereziak
* Itzulpena eta diseinua doan

publi@ataria.eus / 661 678 818

AGENDA

OSTIRALA

AZAROAK 4

ALKIZA

HONDAKINAK BERPIZTEN

Mirari Errondosorekin
Hondakinak berpizten,
elizako arkupeetan.

AMASA-VILLABONA

KONTZERTUA

22:00. The Clayton eta Añube.
Sarrera aurrez 5 euro
eta egunean 8 euro, Aljibean.

AMEZKETA

UDAZKEN KULTURALA

18:00. *Sunpriñue Amezketan*
tertulia. Aralarko artzainen
musika-tresna berreskuratzen.
Pello Zabala gunean.

ASTEASU

MUNDU BAT ASTEASUN

19:00. *Miñan* liburuaz solasaldia,
Ametz Arzallusekin, udaletxean.

BERASTEGI

KULTUR ASTEA

16:00. Merienda Guraso
Elkartearen eskutik,
eskola atarian.

16:30. Herri jolasak Guraso
Elkartearen eskutik, eskola
atarian.

17:00. Mihiluze lehiaketa
Gaztelekuko 12 eta 18 urte
bitarteko nerabeentzat,
udaletxeko pleno aretoan.

19:00. Gaur egungo artzaintza
eta etorkizuneko artzaintzako
azterketa batzuk Ander
Barandiaran artzainaren
bizipenetatik, erabilera anitzeko
gelan.

GAZTELU

ASTEBURU KULTURALA

20:00. Pintxo lehiaketa eta afaria



Erroizpe Azpiko kirol eta kultur
elkartean.

22:00. Miceren kontzertua
izango da.

IKAZTEGIETA

HELDUENTZAKO IPUIN KONTAKETA

19:00. *Kontuak eta komeriak*,
helduentzako ipuin kontaketa.
Monika Arratibel Goñi. Udaletxeko
areto nagusian.

TOLOSA

ESNEKI

10:00-14:00. Esneki, topaketa
sektoriala, Basque Culinary
Center-en.

18:00. *Errapatetik ahorainoko bidea:*
familientzako esperientzia
hezigarria, Ferialekuan. Behiak
jeztetik esnekiak eraldatzerainoko
ikastaroa, Javi Rivero (Ama
taberna), Malen Sarasua
(Leartiker) eta esne ekoizleen
eskutik.

20:30. Esneki esperientzia
gastronomikoa, Ferialekuan.
Esnekien inguruko afaria, Mahaia
Kolektiboarekin.

IKASTAROA

16:00. *Egon zaitetz Google Fit eta*
Wikilocekin. 2 ordu. Euskaraz. Kz
Gunean.

JABETZE ESKOLA

17:00. Boxeo ikastaroa
(9-14 urteko nesKentzat).
Silvia Bilbao. Euskaraz. Doan.
Tolosako kultur etxean.

SENTSIBILIZAZIO ASTEA

Gor komunitatearen
XIX. Sentsibilizazio Astea.

17:15. Lehiaketan parte hartzen
duten marrazkien erakusketa,
inguruko hainbat hezkuntza
zentrotako haurrek egindakoak.
Marrazki hauetan landuko den
gaia Gorren komunikazio
oztopoak da. Marrazki
lehiaketaren sari banaketa,
kultur etxean.

ZIKLOIA

Ostirala eta larunbata.

Klown ikastaro trinkoa, May
Gorostiarekin. 12 orduko
ikastaroa. Helduentzako, euskaraz.
Amarozko auzo-etxean.

IPUIN KONTAKETA

18:00. Miriam Mendoza ipuin
kontalariaren saioa. 3 urtetik
gorako haurrei zuzendurik.
Gurasoek parte hartzea
gomendatzen da. Haur
liburutegiko ekintza gelan.

AMALUR JARDUNALDIAK

19:00. Hitzaldia, gaztelaniaz.
Juan Luis Arsuaga, *Darwin eta*
Humboldt Ekuadorren:
sumendiak, uharteak eta teoria
zientifikoak. Topic-en.

IKUSKIZUNA

20:00. Andoni Mutiloaren
Sex Sua. Doan. Leidorren.

KONTZERTUA

22:00. Zero eta Begitruk taldeen
kontzertua. 8 euro. Bonberenean.

LARUNBATA

AZAROAK 5

AMEZKETA

UDAZKEN KULTURALA

10:00. Hurritz makilak egiten ikasteko ibilaldia Altunegi auzorako bidegurutzean hasita (Dantzarin Saletxe inguruan).

Aurrez izena emateko:

695 712 610.

18:00. Eingo taldearekin erromeria ibiltaria Amezketan zehar, Fernando Amezketarra plazatik hasita.

ASTEASU

MUNDU BAT ASTEASUN

11:30. Munduko ipuinak, udaletxean.

BERASTEGI

KULTUR ASTEA

19:00. Musika kontzertua Ana Iparragirre organo jotzailearen, Amaia Gutierrez biolin jotzailearen eta Begoña Irigoyen sopranoaren estutik, San Martin elizan.

GAZTELU

ASTEBURU KULTURALA

Babarrun lehiaketa bikoteka (sukaldaria eta ekoizlea).

13:00. Babarrunen aurkezpena.

14:00. Babarrun jatea elkartean.

17:00. Txokolate jatea.

18:00. Kontu Konta kantaldia Itziar eta Joxeanekin.

21:00. Kantu-afaria ostatuan.

IBARRA

URTEURRENA

Ibarra kirol elkartearen urteurrena.

11:00. Elkartean bildu.

11:15. Trikitilarien kalejira.

11:30. Hamaiaketakoa.

14:30. Bazkaria elkartean,

trikitilariak giroa alaituko dute.



IKAZTEGIETA

HERRI KROSA

Sariak, zozketa bereziak eta jatekoa.

16:15. Herriko haurrak.

16:30. Ikaztegietak XXXI. Herri Krosa.

OREXA

KULTUR HAMABOSTALDIA

21:00. Herri afaria, ganbaran.

00:30. Piztiak taldearen kontzertua.

Goizaldera. Karaokea.

TOLOSA

ESNEKI

08:00. Euskal Herriko Gazta eta Esnekien Azoka Berezia, Trianguloan eta San Frantzisko pasealekuan.

09:00. Erakustaldia: friso txapelketarako behiak ile-apaindegian, Ferialekuan.

09:45. XIII. Friso Txapelketaren hasiera, Ferialekuan.

10:00-12:30 (ordu erdiro). Euskal Herriko Gazta Mahaia. Euskal gazten aniztasuna ezagutzeko dastaketa gidatua, Beotibar Pilotalekuan

11:00. Esneki Txapelketa: Euskal Herriko gazta eta esneki mota

guztien txapelketa, Beotibar Pilotalekuan.

11:00. Esnetan jarduerak: Frisoi elkarteak sustatuta txekorren zainketa gunea, Leartikerren esne-dastaketa gunea eta esnekiak eraldatzen ikasteko erakustaldia Larretaren eskutik, San Frantzisko pasealekuan.

13:00. Esneki Euskal Herriko gazta eta esneki mota guztien txapelketako sari banaketa, Beotibar pilotalekuan.

14:00. Euskal Herriko XIII. Friso Txapelketako sari banaketa, Ferialekuan.

SENTSIBILIZAZIO ASTEA

Gor komunitatearen XIX. Sentsibilizazio Astea.

11:00. Isabel de las Heras (Granada) Oreja Voladora-ko ilustratzailea ume gorrentzat.

11:00-13:00 eta 16:00-18:00.

Tolosako kultur etxean, gorrentzako tailer emozionala. Aleluya Peña, Madrilgo psikologak eskainita. Adimen emozionala, gatazken kudeaketa arlo ezberdinetan eta sexualitatea hirugarren adinekoengan jorratzen du.

19:00. A Coruñatik Edu eta Mito umoregileak, kultur etxean.

AGENDA

EUROPAKO ONDARE

JARDUNALDIAK

16:30. *Ondarea loratuz, gozatu!* leloarekin Europako Ondare Jardunaldiak. Topic-ek proposatzen duen tailerrak hondakinen sorreraren arazo globalaz eta horrek sortzen duen ingurumen-inpaktu zuzenaz jabetzea du helburu. Parte hartzaileek, modu ludiko eta aktibo batean, hondakin horiek txotxongilo bihurtuko dituzte.

TITERESZENA

18:30. Titereszenaren barruan, *Uanna* ikuskizuna. Andaluziako Clicolé taldea. 6 urtetik aurrerakoentzat. Hitzik gabea. Topic-en.

KONTZERTUAK

19:30. Olatz Salvadorren kontzertua. Donostialdeko artista: Izotz. 5 euro. Leidorren.

22:00. -Gailu eta Rukula taldeen kontzertua. 8 euro. Bonberenean.

IGANDEA

AZAROAK 6

ASTEASU

MUNDU BAT ASTEASUN

Plazan, eguraldi txarrarekin frontoian.

11:45. Irekiera ekitaldia eta *Mundu bat Asteasun!* prozesuaren aurkezpena.

12:00. Atzerriko janari eta edarien dastaketa.

16:30. Familientzat ginkana.

18:00. Kontzertua Tik Tara-rekin.

BERASTEGI

KULTUR ASTEA

Goizean zehar. Azoka eta tartean herriko eta herritarren produktuak eskuragai. Gazta lehiaketa, Sagar tarta lehiaketa, Postu lehiaketa, Ahari, ardi eta bildots lehiaketa, Animalia ezberdinen erakusketa, Rally-ko argazkien erakusketa.

13:30. Sari banaketak.

18:00. Talo jatea eta sagar tarta dastaketa, freskagarriak, ardoak eta sagardoak lagunduta.

Tartean. Naroa Zubiria eta Maider Agirre trikitilarien emanaldia.

GAZTELU

ASTEBURU KULTURALA

11:00-14:00. Azoka, Bertako produktuak, artisauak, sagardo eta mosto dastaketa.

Pintxoak eta gaztainak.

14:00. Jubilatuen bazkaria, Ostatuan.

IBARRA

URTEURRENA

10:00-11:30. Ibarra kirol elkartearen 56. urteurrena. Bola eta toka txapelketak, Emeterio Arrese parkean.

11:00. Meza zendutako bazkideen omenez.

OREXA

KULTUR HAMABOSTALDIA

18:30. *Amaraun* ikuskizuna frontoian.

TOLOSA

KONTZERTUA

20:00. Nyos (Finlandia) taldearen kontzertua. 8 euro. Bonberenean.

ASTELEHENA

AZAROAK 7

AMASA-VILLABONA

JARDUNALDIA

10:30. *Memoria. Bizikidetz.*

Bakea. Argazki emanaldia. Gure historiako pasarteak (1990-2018) ikastetxeekin batera, Ander Gillenearen eskutik. Gurean.

TOLOSA

ELKARRETARATZEA

12:00. Tolosaldeko Pentsiodunen elkarretaratzea, udaletxe aurrean.

ZINEMA



OPERACIÓN BEBÉ OSO

Igandea
(17:00).

Tolosa, Leidor.



EL ACUSADO

Astelehena
(19:00).

Tolosa, Leidor.



LOS BUSCAMUNDOS

Larunbata eta igandea
(17:00).

Amasa-Villabona, Gurea.



UN AÑO, UNA NOCHE

Larunbata (19:30 eta 22:00);
igandea eta astelehena
(19:30).

Amasa-Villabona, Gurea.

KONTU ZAHAR ETA BERRIEN ARTEKO TALKAK

Berrobiko Txalo-Talo antzerki taldeak Dulantziko XVI. Antzerki Amateur Jaialdian hartuko du parte, azaroaren 19an; tradizioa, lehengo bizimodua, ohitura zaharrak eta gaur egungo berriak uztartzen dituen 'Zaharrak berri' antzezlanaren eramango dute oholtzara.

Irati Saizar Artola

Zaharrak berri. Izenean bertan islatzen da antzezlanak kontatzen duena. Gizartean ematen diren aldaketak kontatzen ditu Txalo-Talo antzerki taldeak ondu duen antzezlan berriak. Baserriko familia tradizional bat oinarri hartuta, ohitura zahar eta berrien arteko talka horretan sortzen diren egoera ezberdinak taularatzen saiatu dira. Eta laster taularatuko dute; uda aurretik estreinatu zuten Berrobin, eta hilaren 19an, Dulantzin ospatuko den XVI. Antzerki Amateur Jaialdian izango dira.

Zaharrak eta berriak dakartzan talka horien bidez josi dute emanaldia. Teknologiaren erabilera izango da talka horietako bat sortuko duena, edota familia egituraren inguruan ere arituko dira, Aran Rodas Txalo-Talo antzerki taldeko kideak zehaztu duenez: «Baserriko familia horretan gurasoez gain seme-alabak ere badaude, eta gazteek bestelako teknologiak erabiltzen dituzte helduenek gehiegi ezagutzen ez dituztenak, eta familia egitura normatibotik alden-

duko gara baita ere, horrek sortuko dituen elkarrizketa interesgarriak entzunez».

Antzezlanean zazpi lagun ariko dira aktore lanean. Familiaren oinarrian, guraso paperean, aita Mikel Agirretxe izango da, Luixito; Ana Goñi, bere emaztea, Juanita paperean ariko da. Bi alabak, Aran Rodas eta Aloña Izagirre, Itziar eta Leireren paperean. Alaben lagunak izango dira Oihane Bergara eta Joseba Izagirre, Amane eta Jon. Horrez gain, Anttoni bizilaguna izango du familiak, Lurdes Ibañezek gorpuztuko duena.

Familia, lagunak eta bizilaguna. Hor mugituko dira aktoreak. Garai batean baserri batetik bestera komunikatzeko erabiltzen ziren moduak ikusteko aukera ere izango da, bizilagunen arteko elkarrizketek eta kontuek erakutsiko dute hori. «Oso hasiera polita du lanak, aspaldiko garaiak etortzen dira burura, komunikatzeko modu horiek ikusita».

Jendea identifikatuta sentitu daitekeen antzezlan



Zaharrak berri

Antzezleak

Aloña Izagirre
Ana Goñi
Aran Rodas
Joseba Izagirre
Lurdes Ibañez
Mikel Agirretxe
Oihane Vergara

Zuzendaria, dramaturgia, argiteri eta soinua

Ester Poveda

Eszenografia

Eva Rodriguez

Jantziak

Txalo-Talo

bat dela argi du Rodasek. Egoera ezberdinak «dosi txikietan» adierazten saiatu dira, gero bakoitzak bere irakurketa egin dezan. «Gertuko antzezlan bat da, erraz ikusten dena, eta identifikagarria izan daitekeena».

Txalo-Talo antzerki taldeak berea du umoretik antzetzearena, eta kasu honetan ere hala egin du. Komediatik landu dute gaia, beraz, barre egiteko parada ere eskaintzen du lanak. «Egia esan, gidoian beti sartzen ditugu umore ukituak, orain arte horrela erabaki delako eta beti iritsi izan garelako erraz publikoarengana. Hala ere, bestelako planteamen-duak ere egin izan ditugu, baina kasu honetan komediatik jo dugu, azkartasun puntua eta erritmoa emanez».

«Familiako pertsonaia helduenak gurasoak dira, pentsamendu tradizionalenak dituztenak, eta gazte-ek xaxatuko dituzte gaur egun ohikoak diren gaiak ikusaraziz». Baina helduen artean ere bi aldeak ikus daitezke: «Esaterako, helduenei teknologia berrietan

sartzeak beldurra ematen die, baina ez gai ez direlako, baizik eta aldaketa horrek sortzen duelako beldurra eta betikoan jarraituta eroso daudelako». Hor ere bakoitzak zein bide hartuko duen ikusiko da.

Eta oholtzari begira, berrikuntza batekin dator lan



berria. Estreinakoz, eszenografiarako aditu baten laguntza izan dute: Eva Rodriguez hain zuzen. Base-riarekin zerikusia duen lana izanik, erabili duten material nagusia egurra izan da, «egur kolorea, naturaren koloreak, marroia, berdea sartzen saiatu gara». Oholtzarako egurrezko egitura bat prestatu dute, eta eszena bakoitzean egitura hori moldatu egiten dute dagokion eszenografiara, izan sukalderako, armairu baterako edota etxeko sarrerarako.

«Gidoian beti sartzen ditugu umore ukituak, beti iritsi izan garelako erraz publikoarengana»

«Zerbait praktikoa nahi genuen, eta halaxe egin dugu, autoan hara eta hona ibiltzeko moduko materiala behar izaten dugulako».

Gidoia idazteko taldekide guztiek ematen dituzte beraien ideiak, baina guztia fintzen Ester Poveda aritzen da, kasu honetan bezala. «Komediatik jotzeko ikasketak ere baditu, eta badaki gidoiak nola boro-bildu». Bera aritzen da zuzendari lanetan, aktoreak zuzentzen, eta guztia antolatzen.

Dulantzira begira

Ekainean, uda aurretik estreinatu zuten antzezlan, herrian bertan, Berrobin. «Lehen aldia zen leku ireki batean, kanpoan egiten genuena. Eskolako aterpean egin genuen eta egia esan, bilduta, goxo sentitu ginen. Gure beldurrak bagenituen, ahotsa entzungo ote zen, gauez izanda argi aldetik ea zer moduz, baina egia esan beti bezalako erantzuna jaso genuen, oso ona, eta pozik geratu ginen».

Eta lan berarekin badute beste erronka bat. Gaurtik azaroaren 26ra ospatuko den Dulantziko XVI.



Antzerki Amateur Jaialdian parte hartuko dute. Uda aurretik eman zuten izena eta aurkeztu diren talde guztietatik bederatzi izan dira onartuak; tartean, *Zaharrak Berri* antzezlanak. «Gasolina moduko zerbait eman dio taldeari hautatua izateak. Behin lana prest izanda, mugitzeko aukera izatea, eta gainera jaialdi batean izatea, primerakoa da. Indarberritu egin gaitu, aurrera jarraitzeko gogoak handitu, eta egiten dugun lan horren saria da guretzat horrelako jaialdi batean parte hartu ahal izatea», dio Rodasek. Azaroaren 19an antzeztuko dute, 19:30ean, Dulantziko kultur etxean. Azaroaren 26an amaituko da jaialdia, eta sari banaketa egun horretan egingo dute.

Aurretik, Urretxuko Antzez Motz jaialdian hartu izan du parte Txalo-Talo antzerki taldeak. «Esperientzia ederra izan zen hura ere, baina hura bertako jaialdi bat izan zen; Dulantziko hau estatu mailako jaialdia da». Jende berria eta talde berriak ezagutzeko aukera izango dutela uste du berrobitarrak, eta gogorik ez dute falta parte hartzeko: «Eguna iristen denean, energia ez dagoen lekutik ere ateratzen da,

«Egiten dugun lan horren saria da guretzat horrelako jaialdi batean parte hartu ahal izatea»



eta indarrarekin joango gara, ea taula gainena magia sortzen den».

Afizioz aritzen dira aktoreak antzerkian, eta horrelaxe daukate osatuta antzerki talde xumea. «Taldekide batzuk ikasleak direla, besteak gurasoak, lanean daudenak, ez da erraza astero-astero entseguak egiteko guztiok elkartzea. Horrelako aukerarekin, ordea, txar guztiak ahaztu eta ona besterik ez dugu ikusten».



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGURALDIA

OSTIRALA

Giro ezatsegina. Egun osoan zehar hodeiak nagusi izango dira eta euri kontuak izango ditugu. Goizean goiz eta azken orduetan euri gutxi izango da, baina egunaren erdiko orduetan zaparrada mardulak botako ditu eta nahiko sarri. Ipar-mendebaldeko haizeak zakar joko du eta temperatura jaitsi egingo da, nekez gaindituko dira 12-14 graduak.

LARUNBATA

Giro egonkorra. Goizean hodei gune batzuk agertuko dira, baina ateri egongo da. Gainera, hodei hauek desagertzeko joera izango dute eta eguerditik aurrera eta arratsaldean zehar zerua ia erabat oskarbi mantenduko da. Haizeak aldakor xamar joko du, baina beti ere, hego ukitu bat izango du. Temperatura nabarmen igoko da. 18-19 graduan joaz goia.

IGANDEA

Giro lasaia. Goizean zeruan hodeiren bat edo beste agertuko bada ere, giro eguzkitsua izango dugu. Arratsaldean zehar erdi eta goi-mailako hodeiak ugarituko dira mendebaldetik, baina bestelako ondoriorik ekarri gabe, giro lasaiak jarraipena izango duelarik. Hego, hego-mendebaldeko haizea bizi ibiliko da eta tenperaturak gorako bideari eutsiko dio, 20-21 graduan joaz goia.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberririk...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€

45€

51€

Atarikideek

12€

33€

38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

AZAROAK 4, OSTIRALA

TOLOSA

Egunekoa. Eburne Bengoetxea.

Kale Nagusia, 7.

943 67 06 48.

AZAROAK 5, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.

Korreo kalea, 2.

943 67 01 28.

AZAROAK 6, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Lurdes Azpiroz Galarza.

Larramendi, 6-1 behe. 943 67 51 18.

AZAROAK 7, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.

Kale Berria, 34. 943 69 11 30.


EGUNERO

GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:

TOLOSA.

LEIRE ANDRES MORANT.

ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.



Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20150 BILLABONA

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484





BLACK // FRIDAY

2MÓ 79€

MONOFOKALAK

ETA ASKOZ GEHIAGO...

San Frantzisko, 23

Tel.: 943 69 84 70

TOLOSA

www.multiópticas.com   

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua